

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Diruaren izurria

FLANDRIAN 1637AN “Viseroij” aldaerako idi-bihotz (*Tulipa* sp.) erraboil bat eskuratzeko artisau eskulangile trebe baten hogeituro urteko soldata ordaindu behar zen, tokiko eta garaiko 3.000 gulden. Orduko berripaper batek dioenaren arabera, diru horrekin zortzi txerri, lau idi, hamabi ardi, 24 tona gari (*Triticum* sp.), 48 tona zekale (*Secale cereale*), 480 litro mahatsardo, bi barrika garagardo, 2.000 kilo gurin, 1.000 libra gazta, zilarrezko edalontzi bat, ohe bat bere koltxoi jantzi eta guzti eta txalupa bat erosi zitezkeen. Astakeria galanta!

Ez zen garestiena, ordea. Astakeria handiagoak egiteko prest zegoen jendea bazen. Sasoi haietan geurean bezala, han ere itsasontziak tresnatzen zituzten ontzi-jabeak ziren aberatsenak. Eta pitokerietan tentelenak. Dutch East India Companyko zuzendariak, zorriak ziztatuta erantsitako birus baten ondorioz kolore nahasketa berezia zuen idi-bihotz bat zuen. Bakarra, “Semper Augustus” aldaerakoa. Urtetan inori eman gabe berak ugaltu zuen eta ikusten zutenen gorespen eta laudorioak zirela-eta, urtetik urtera gero eta diru gehiago eskaintzen zioten lore dotorearen erraboil baten truke: 1623an 1.000 gulden bazen, 1637an 10.000. Gehiegizkoa, neurritz kanpoko! Dirutza horrekin

Amsterdamgo modako kanalaren bazterrean etxe handi bat eros zitezkeen, edo bertako familia oso bat bizitza erdian jantzi eta elikatu. Laster damutuko zen, koittadua, saldu ez izanaz. Konparaziorako, Rembrandt margolariak bere *De Nachtwacht* (Gaueko erronda) maisulana 1.600 guldenetan saldu zuen 1642an. Jendeak Tulp abizena gehitzen zion bereari, gorazarre haizearen ikur. Horixe egin zuen aipatutako margolariaren 1632ko *De anatomische les van Dr. Nicolaes Tulp* (Nicolaes Tulp doktorearen anatomia irakaspena) lan ospetsuko Claes Pieterszek.

Sekula gehien ordaindu den idi-bihotz erraboila “Violetten Admiral van Enhuizen” aldaerako bat izan zen, Alkmaar hirian 1637ko otsailaren 5ean: 5.200 guldenen ordainetan. Saltzailea gustura izango zen. Bi egun lehenago Haarlemen enkantera jarritako erraboilek ez zuten erostunik izan eta “tulpenwoede” eromenaren amaiera hasi zen. Sekulako krisian amildu zen estatua. Harrez gero, diruaren salerosketatik bizi den jendilajeak honelako krisiei “tulipmania” deitzen die.

Hori gertatzen ari zenean, 1633 eta 1637 artean, herritarren zazpitik bat lurpera eraman zuen izurri bubonikoak jo zuen herrialdea.



JAKOBA ERREKONDO



Piperminak

Piperminak min pixka bat behar duela uste duten horietakoa naiz. Etxeko kasta. Udan tomatea adina gustatzen zait pipermina, edo gehiago! Frijitua gutizia. Gordinik tomate berarekin edo babarrun berrie-kin... zerua. Kapsizina deitzen den osagaiak ematen dio mina edo beroa piperrei. Toki bero eta lehorretan hazi egiten zaio, ahosabaia sorgortzeko gai izateraino. Isuri atlantiarreko lurretan, baina, hezetasunak bi lan egiten ditu: batetik, min horri tamainan eusten dio eta, bestetik, azal fina ez zaio zakartzten. Ebro aldeko piperminak sua dira, itsasaldekoak mauka. Eta kapsizina punttu horrek digestioa errazten du, babarrun janaldi baten ondoren eskertzekoa...

